

Gizarte Ekimeneko Ikastetxetan lan hitzarmena lortzeko erresistentzi kutxa ezinbestekoa tresna!



Gizarte Ekimeneko ikastetxetan Lan Hitzarmenaren negoziaketa daukagu abian. Sektorean ELA da lehen sindikatua ia %60ko ordezkaritzarekin.

Aurreko Lan hitzarmenaren negoziaketa gogorra eta luzea izan zen. 29 greba egun izan ziren beharrezko hiru ikasturtetan sakabanaturik, 10 urtez berritu gabeko Hitzarmena lortzeko. Baina gatazka hura Lan hitzarmen on baten lorpenarekin amaitu zen grebalarien tinkotasunari esker.

Oraingoan ere Patronalen jarrera ez da aldatu. Ezta Eusko Jaurlaritzarena ere. Aurreko Hitzarmenak 2021eko abendutik indarraldia agortuta dauka. Mahai negoziatzaileko 13 bilera baino gehiagotan ordea, patronalek ez dute Hitzarmena berritzeko beharrezko edukirik proposatu. Eusko Jaurlaritza ere isilik dago, gatazkan inolako ardurarik ez balu bezala.

Ezin dugu beste hamarkada batez Lan Hitzarmena berritu gabe egon. Premiazkoa da beraz, patronalen blokeo honen aurrean eta Jaurlaritzaren isiltasunaren aurrean greba dinamika indartsu bati lehenbaitlehen ekitea.

ELA sindikatua erronka hau jasotzeko prest dago eta horrelako gatazka bati aurre egiteko tresna egokiak ditu. Tresna nagusia bere Erresistentzia Kutxa da. Sindikatura afiliatuta dauden langileek bere kuotaren zati bat Erresistentzi kutxara bideratzen dute. Horrela, gatazka bat dagoenean 3 greba egun deitzera iritsiz gero, afiliatuek egindako greba egunengatik diru laguntza bat jasotzen dute. 2023ko Erresistentzi kutxaren zenbatekoa greba egindako egun bakoitzeko 60, 97 Eurotarainokoa izan daiteke.

Aurten greba egun bat gauzatu dugu jadanik. Baina agerikoa da hau ez dela nahikoa izango patronalak eta Eusko Jaurlaritza mugiarazteko.

Datorren ikasturtean greba dinamika indartsu bat abian jarri nahi dugu. Horretarako indar egoera batean egon behar dugu. Eta hori greba dinamika indartsu bat jarraian mantentzeko gai bagara lortuko dugu. Horregatik ELAn afiliatzera animatu nahi zaitugu, erresistentzi kutxako diru laguntza jasoaz grebari eta Lan Hitzarmen berriaren negoziaketari zure babesa eman ahal izateko.

Zure Lan hitzarmenaren alde borrokatzeko,

AFILIATU ELAra!

Zer ari gara aldarrikatzen?

»» Enplegua mantentzeko eta lan kargak arintzeko neurriak.

- Birkokapen akordio iraunkor bat, hau betearazteko bermeak eta erreglamendua hitzarmenean txertatzea.
- Lanaldi eta ordu murrizketak denontzat. Ordezkapenak bete.
 - Irakasleak: Ordu lektiboen jeitsiera ordu osagarrien mesedetan, osagarri horiek lan pertsonalerako ordu gisa blindatuz.
 - Irakasle ez diren tituludunentzat: Irakasleen urteko lanaldi berdina.
 - Kolektibo guztietan ordezkapenen erregimena hobetzea.

»» Sektore prekarizatuenak hobetzeko neurriak.

- EAE: lanaldi osoak bermatzea eta ordu osagarriak gehitzea arreta zuzenekoak murriztuz
- AZP: urteko lanaldi murrizketa esanguratsua, lan zamak neurtzeko eta mugatzeko neurriak ere ezarriz.
- HH lehen zikloko (0-2) langileen eta HH bigarren zikloko langileen arteko homologazio prozesuan pausoak ematen hasi (lanaldian eta soldatetan)

»» Soldatak.

- KPI araberako soldata igoerak.
- Aurrez galdutako eros ahalmena berreskuratzen joatea.
- DBH 1 eta DBH 2ko irakasleen soldata parekatzea.

»» Lanbide heziketako erregularizazioa.

- Lanaldi irregularra arautzea: Asteko ohiko eskola orduak gainditzeko baldintzak negoziatu eta hitzarmenean txertatuz:
 - Ordu lektibo eta osagarrien proportzioa mantendu beharko da
 - Konpentsazioa egon beharko da
- FCTs: 6 ordu astean ikasturte osoan; ez bakarrik praktika garaian
- Tailerretan bikoizketa arautu
- Lanbide Heziketako lege berriak ekar ditzaken aldaketen aplikazioa negoziatzea

»» Lan osasuna zaintzea. Arrisku psikosozialen ebaluazioa, prebentzioa eta aurre egiteko neurriak bereziki.

»» Euskara planak langilego guztiarentzat.

»» Berdintasun planak garatzea ikastetxez ikastetxe.